

LEHIAKETAK-CONCURSOS / SIDRA-SAGARDOA

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

[RSS Feed](#)
[Twitter](#)
[Facebook](#)

Buscar / Bilatu

Categorías

[Agenda-Agenda](#)
[Azokak-Ferías](#)
[Ekitaldiak-Eventos](#)
[Errezetak-Recetas](#)
[Esperientziak-Experiencias](#)
[Formazioa-Formación](#)
[Gastronomia-Gastronomía](#)
[Historia-Historia](#)
[Kultura-Cultura](#)
[Lehiaketak-Concursos](#)
[Museos-Museoak](#)
[Prensa-Prensa](#)
[Sagarra-Manzana](#)
[Sagastia-Manzanal](#)
[Sidra-Sagardoa](#)
[Sidrerías-Sagardotegiak](#)
[Sin categoría](#)
[Turismoa-Turismo](#)

Post Recientes



Sagarrondoak udaran zaintzeko ikastaroa.



4. Ilarraren Jardunaldiak Astigarragan.



“Markesaren alaba eta Luixen istorioa” Sagardoetxean.

XIV. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 09/03/2015 - 11:10

Sin comentarios



Udajolas 2015
Sagardoetxean.



Usurbilgo XXXIV. Sagardo Eguna igandean, maiatzak 17an.



2015eko ekainaren 6an "XIV. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak" ospatuko da Donostiako Euskal Gastronomía Elkarte.

Antolaketa

Lehiaketa Batzordea honela osatuko da: Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko bi ordezkari eta Euskal Gastronomía Elkarteko ordezkari bat; eta bere egitekoa izango da "XIV. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak" izeneko lehiaketa kudeatzea.

Sagardo lehiaketako **epaimahaia** bederatz lagunek osatuko dute, ondoren zehazten den moduan:

- Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko foru diputua izango da epaimahaiburua.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak zazpi kide proposatuko ditu epaimahairako. Proposatutako kideak ENAC erakundeak egiaztatutako sagardoaren dastaketa paneleko kideen artean aukeratu dira.
- Berrikuntzako, Landa garapeneko eta Turismoko Departamentuko funtzionario batek, Antolaketa Batzordeko kide denak, egingo ditu idazkari lanak, hitzarekin bana botorik gabe.

Izen-emateak

Sagardo naturala bakarrik onartuko da. Sagardo naturala egiten duten enpresek Gipuzkoan kokaturik egon behar dute eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Industrien Erroldan izena emanda; horrez gain, Botilalaratze Erregistroa eta Osasun Erregistroa eduki behar dituzte.

Errolda eta erregistro agiri horiek **2015eko apirilaren 17ko 14:00ak baino lehen** lortu behar dira, orduan bukatzen baita eskariak aurkezteko epea.

Eskaria, behar bezala beteta, helbide honetara bidali behar dira:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa garapeneko eta Turismoko Departamentua
Landare Alorreko Unitatea
Gipuzkoa plaza z/g - 20004 Donostia

Laginak jasotzea

Antolatzaileek, sagardotegi bakoitzean, kupeletik zuzenean hartuko dituzte laginak.

Lagin bakoitzeko bi botila laborategi enologiko ofizial batera bidaliko dira, analiza dezaten.

Sariak

Lehiaketan finalista geratzen diren lehenengo hirurei honako sari eta garaikurrak emango zaizkie:

- Lehenengo saria: 3.000€, txapela eta garaikurra.
- Bigarren saria: 1.500€ eta garaikurra.
- Hirugarren saria: 1.000€ eta garaikurra.

Lehiaketaren finalera iritsi diren gainerako lehiakideei diplomak emango zaizkie.

Eskuratu "XIV. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak" foru agindua

Tags: Cofradía Vasca de Gastronomía, Concurso de sidra, Diputación Foral de Gipuzkoa, Euska Gastronomía Elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundia, sagardo lehiaketa, sagardoa, Sidra

Anterior post

Jornada sobre variedades de manzana de sidra. Sagardo sagar barietateen inguruko jardunaldia.

Siguiente post

Semana Santa 2015 en Sagardoetxea: Degustación de sidra y quesos de Euskal Herria. Aste Santua 2015 Sagardoetxean: Sagardoa eta Euskal Herriko gazten dastaketa.

Tu comentario / Zure komentarioa

Comentarios recientes

Sagardoaren Lurraldea en Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.

Jarras también en las antiguas sagardotegis | pitxTapitch en Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.

Sagardoaren Lurraldea en Sagastiak loretan" ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.

Marisa en "Sagastiak loretan" ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.

m. petrus en "Sagastiak loretan eta ardiak larretan" argazki lehiaketa Facebook-en.

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar